

ERGATIBOAREN JABEKUNTZA: IKERKETA ESPERIMENTAL BAT ETA BERAREN EMAITZAK

Tesiaren egilea: Maider Huarte Abasolo

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Cecile McKee (University of Arizona, Tucson)

Tesiaren laburpena:

Euskararen jabekuntza aztertu dutenek ergatiboaren jabekuntzarekin arazo bat dagoela iradoki dute: elebakarrak edo elebidunak izan, haurrek hilabete gutxi batzuk behar dituzte kasu marka hau modu emankorrean erabiltzeko. Tesi honek, berriz, ulermen frogan batean oinarrituta, haurren sistema gramatikala, ergatiboari dagokionez behintzat, hasieratik guztiz osatuta dagoela iradokitzen du.

Ergatiboaren jabekuntza ustez berantiar hau azaltzeko, bi hipotesi proposatu izan dira: hedatuena sintaxiari leporatzen dio haurrek ergatiboarekin duten balizko zailtasuna (Barreña 1995, eta ondorengo lanak; Ezeizabarrena eta Larrañaga 1996; Eloseggi 1996, 2000; Byrnes Austin 2001, 2007). Hipotesi horren arabera, haurrak modu mailakatuan jabetuko lirake euskaraz kasuak ezartzen dituzten proiektio funtzionalak (cf. jabekuntza mailakatuaren hipotesia; Radford 1986 eta geroko lanak). Fonologian oinarritutako bigarren hipotesiak iradokitzen du ergatiboaren ekoizpena testuinguruak baldintzatuta egon daitekeela (Eloseggi 1996): haurren datuetan, gehiagotan ekoizten da ergatiboa bokal artean edo ekoizpenaren amaieran, kontsonante aurrean baino.

Nolanahi ere, interpretazio biek dituzte arazoak. Alde batetik, hipotesi sintaktikoak nekez azaldu dezake haurren arazoak ergatiboarekin lotuta baino ez izatea. Zergatik izan beharko litzateke zailagoa ergatiboaz jabetzea absolutiboaz edo datiboaz jabetzea baino? Gainera, hipotesi honek ezin du haurrek egiten dituzten akatsen azalpenik eman. Gehienetan, kasu markarik gabe uzten dute sintagma, baina ez dute sintagmari ez dagokion kasu marka bat erabiltzen beharrezkoa litzatekeenaren orde, proiektioak finkatu barik baleude esperoko genueen bezala. Beste alde batetik, hipotesi fonologikoa indartuko lukeen argudiorik ere ezin dugu aztertutako corpusetan bilatu. Ikusi beharko genuke haurrek arazorik duten *-k* fonemarekin osatutako beste morfema batzuekin: plurala (*-k*), partitiboa (*-rik*). Baina tankera horretako adibide gutxi agertzen dira haurrek ergatiboa modu emankorrean erabiltzen ez duten aro horretan, eta, beraz, ezinezkoa da konparaketa egitea.

Ikerketa lan honetan, 66 haur elebidunekin egindako ulermen frogan baten emaitzak plazaratzen dira. Haurrak hiru adin taldetan daude banatuta: 2;04tik 2;09ra bitarteko 24 haur aztertu dira; 2;09tik 3;03ra bitarteko 21 haur; eta 3;04tik

4;01era bitarteko beste 21 haur. Haurrei hiru estimulu mota eman zitzaizkien: esaldi motak eskatzen zuen bezala, ergatiboarekin markatutako estimuluak; haurrek egiten dituzten hutsetan gertatzen den bezala, ergatiboaren ordeztutako absolutiboarekin markatutako estimuluak; eta azkenik, *-l* sasimorfemarekin markatutako estimuluak. Estimulua entzun ondoren, lau marrazkiren artean aukeratzeko eskatu zitzaien.

Ulermen froga horretatik hiru ondorio nagusi ateratzen dira: batetik, ekoizpenean gertatzen denak iradokitzen duenaren kontra, testuinguruari dagokion kasu marka ez agertzeak ulermena eragozten du. Bestela esanda, haurrei emandako estimuluak ergatiboarekin markatuta egoteak erraztu egiten du marrazki zuzena aukeratzeko lana. Bigarrenez, haurrek ulermenean kasu marka bakoitzari dagokion testuingurua bereizten dutela erakusten da. Eta hirugarren ondorioa, eta beharbada garrantzitsuena, ergatiboa modu helduan erabiltzen ez duten haurrek kasu hau hitzen jarioaren ulermenean erabiltzeak haurren sistema gramatikala osatuta dagoela pentsatzera garamatza. Hortaz, kasuak ezartzen dituzten proiektzio funtzionalak piztuta eta ondo finkatuta daude uste baino lehenagotik. Azkenik, ekoizpen eta ulermen mailen arteko jauzia Levelten (1989) *Ekoizpen eredu*an oinarrituta azaltzea proposatzen dut.

EUSKALDUN ELEBIDUNAK SINTAXIA PROZESATZEN: KASUA ETA KOMUNZTADURA NEUROIRUDIEN BIDEZ

Tesiaren egilea: Adam Zawiszewski

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

Tesi-zuzendaria: Beatriz Fernández Fernández

Tesiaren laburpena:

Doktorego tesi honek alde biko xedea du: batetik hizkuntza bat jaiotzez ala geroago ikasteak ulermen prozesuan eraginik ote duen erakustea, eta bestetik, orain arte esperimenterik inoiz aztertu ez diren bi gertakariri begiratzea, alegia, ergatibo kasuari eta osagarri komunztadurari.

Edozeinek susma ditzake jatorrizko euskaldun batek eta euskaraz geroago ikasi duenak hitz egitean erakusten dituzten ezberdintasunak. Besterik da jaiotzezko euskaldunak, eta oso-oso txikia dela, urte betetik hiru urtera bitartean, euskaraz jabetu denak erakusten dutena: bi horien artean nekezago susma daitezke ezberdintasunak; igarri ere ez genituzke igarriko, biek ondo baino hobeto euskaraz hitz egin, irakurri edota ulertuko luketelako. Baina gizakiok antzematen ez ditugun ñabardurak gardenak dira zenbait teknologia berriren begietara. Hala, Gertaerei Loturiko Potentzialek (ingelesez *Event-Related Brain Potentials* deritzateneak), esaterako, hizkuntza prozesatzen dugunean gure garunean zer gertatzen den erakusten digute. Izan ere, edozerk sortzen du tentsio elektrikoa giza garunean, ikusten edo entzuten dugun zerbaitek, adibidez, eta Gertaerei Loturiko Potentzialen bitartez tentsio hori jaso eta neurtu daiteke. Horregatik, hiztun bati estimulu zehatz bat emanaz gero –jo dezagun, hitzak edo esaldiak– tentsio-korrontearen aldaketa ikus daiteke garunean –uhin baten bidez azaleratzen dena– eta uhin hori zein denboratartetan eragin den eta nolakoa den jakin daiteke.

Hizkuntzaren eremuan, hizkuntza-estimulu ez-gramatikalez baliatu izan dira ikertzaileak hainbat lanetan. Esaterako, (1) *Nik zu bakarrik ikusi dut* esaldia ez-gramatikala da, *zu* osagarriarekin komunztadura egitean, *du* adizkiak “kale” egiten duelako. Halako estimulu ez-gramatikalek uhin positibo bat eragiten dute buruaren atzealdean kokatutako elektrodoetan, akatsa ikusi eta handik 600 milisegundotara. Positibotasun horrek adierazten du garuna *okerraz* ohartu egin dela eta ordura arte prozesatu duena nolabait konpondu beharra duela esaldia egokiro ulertzeko.

Egin ditugun esperimenteren emaitzek erakutsi dutenez, hizkuntzaren jabetze-adinak berebiziko garrantzia du garunean hizkuntza egituratzen edo prozesatzen den eran. Hala, (2) *Liburua irakurri du neska* bezalako estimulu ez-gramatikal baten aurrean —*neska* subjektuak ez du-eta erakusten beharrezkoa zaion ergatibo marka, –*k* alegia—, jaiotzezko hiztunak perpausaren ez-gramatikaltasunaz ohartu

ziren; aldiz, hiru urterekin ikasi zutenen garunean ez zen aldaketarik —uhin positi-
borik— sumatu (A irudia). Ikusten denez, kasuari dagokionez, ezberdintasun nabar-
mena erakusten dute hiztun talde biek. Aldiz, komunztadurari eragiten dioten (1)
moduko estimuluekin, oso antzeko erantzun elektrofisiologikoa antzeman daiteke
hiztun talde bien artean (B irudia). Beraz, hizkuntzaren jabetze-adinak ezberdin
eragiten die kasuari eta komunztadurari, beste hizkuntza batzuetan erakutsitako-
ren kontra. Ez hori bakarrik: osagarri-aditz komunztaduran —(1) estimulua—
antzeman dugun uhin mota, eta hainbat hizkuntzatan, baita euskaraz ere, sub-
jektu-aditz komunztaduran —*Nik liburua irakurri *du* motako esaldiekin batera—
aurkitu dena ez dira berdinak. Horrek hizkuntza-teorian garrantzi handia du,
erakusten duelako batetik kasua eta komunztadura bi gertakari linguistiko ezberdin
direla eta bestetik subjektu- eta osagarri-komunztadura asimetrikoak direla.





